KOIUNTURA DI-DA BATEAN

2021eko martxoa

Aurkibidea

1. Gizarte Segurantzako afiliazioa

2. Langabezia erregistratua

3. Inflazioa

4. Inguruneko hazkundea

5. Sentimendu ekonomikoa

6. Europako Batzordearen aurreikuspenak

7. Hilabeteko laburpena

Eranskina

1. Aldaketa gutxi Gizarte Segurantzako afiliazioan.

Azken bost hilekoetan %2,0aren inguruko jaitsiera tasak jaso ditu.

2. Langabezia erregistratuak igotzen jarraitzen du, baina gero eta gutxiago.

Otsaileko urte arteko aldakuntza tasa %10,1ean kokatu zen, apiriletik izan den txikiena.

3. KPI indizea tasa positibotara itzuli zen urtarrilean.

Argindarraren garestitzea izan zen igoeraren erantzule nagusia.

4. Koronabirusak Europar Batasunaren zazpi urteko hazkundeari amaiera eman dio.

Laugarren hiruhilekoaren urte arteko tasak, oro har, hirugarrenekoak baino okerragoak izan ziren.

5. Euroguneko sentimendu ekonomikoak hobera egin zuen otsailean

Hala ere, oraindik urrun dago 2020tik aurrera jaso dituen batez besteko balioetatik..

6. Ekonomiaren eszenategia txertoen eraginkortasunaren mendean dago.

Europako Batzordearen arabera, hazkundea bigarren seihilekotik aurrera bizkortuko da.

7. Hilabeteko laburpena.

Txertaketak baikortasun izpi bat ekarri du.

EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO

Aldaketa gutxi Gizarte Segurantzako afiliazioan

Gizarte Segurantzak argitaratu dituen datuen arabera, otsaileko afiliazioen kopuruak %2,2 egin zuen behera 2020ko hilabete berarekin alderatuta. Aldakuntza tasa hori aurreko aldietan erregistratutakoen oso antzekoa da. Hain zuzen ere, bost hilabete dira jadanik %2,0aren inguruko tasak jasotzen direla eta horrek enplegua berreskuratzeko prozesua galgatu egin dela pentsarazten du, pandemiari aurre egiteko hartu diren murrizketek baldintzatuta.

Afiliazioen datuak ABEE batean dauden pertsonen kopuruarekin zuzentzen direnean, gaur egungo lan merkatuaren ikuspegi osoagoa lortzen da. Izan ere, otsailean 38.800 pertsona zeuden ABEE baten eraginpean, hau da, aurreko hilean baino 6.700 gehiago. Beraz, ABEEak zuzendutako otsaileko afiliazioaren zenbakiek –%6,2ko urte arteko tasa ematen dute, urtarrileko tasarekin alderatuta ia puntu bateko okertzea adierazten duena.

Gizarte segurantzako afiliazioa guztira

Urte arteko aldakuntza tasa

Otsaileko afiliazioa

-%2,2



Gizarte segurantzako afiliazioa guztira (ABEErik gabe)

Urte arteko aldakuntza tasa

Otsaileko afiliazioa

-%6,2



Gizarte Segurantzako afiliazioa. Emakumeak (ABEErik gabe).



Gizarte Segurantzako afiliazioa. Gizonak (ABEErik gabe).



Afiliazioaren aldakuntza tasak, ABEEekin zuzenduak, antzekoak dira bi generoetan. Zehazki, otsailean –%6,3 izan zen emakumeen artean eta –%6,0, berriz, gizonen artean. Otsailaren amaieran, 20.400 emakume eta 18.000 gizon inguru zeuden ABEE baten eraginpean.

Jarduera adarren arabera, afiliazioak bereziki ostalaritzan eta manufakturetan jaitsi ziren, baina merkataritzan, beste zerbitzu batzuetan eta jarduera artistikoetan ere beherakada nabarmenak izan ziren. Aitzitik, afiliazioak osasun arloan bakarrik egin du gora nabarmen.

Gizarte segurantzako afiliazioa

	2020ko otsaila	2021eko otsaila	Aldakuntza
AFILIAZIOA GUZTIRA	**973.152**	**951.772**	**-21.380**
Industria manufakturagileak	174.503	167.954	-6.548
Merkataritza	136.564	133.273	-3.291
Osasun arloko jarduerak	104.637	107.775	3.139
Hezkuntza	76.632	76.260	-372
Administrazio jarduerak	65.436	65.653	217
Ostalaritza	67.214	59.765	-7.449
Eraikuntza	57.437	57.144	-293
Lanbide jarduerak	57.418	56.504	-914
Administrazio publikoa	49.637	49.640	3
Garraioa	42.558	42.232	-326
Etxeko langileak	29.590	28.842	-748
Bestelako zerbitzuak	28.393	25.786	-2.606
Informazioa eta komunikazioa	23.312	23.581	270
Finantza jarduerak	17.792	17.392	-399
Jarduera artistikoak	17.423	15.584	-1.839
Nekazaritza, abeltzaintza eta arrantza	12.030	11.869	-161
Ur horniketa	6.281	6.217	-64
Higiezinen jarduerak	4.161	4.127	-34
Energia horniketa	1.520	1.573	52
Erauzketa industriak	558	533	-26
Lurraldez kanpoko erakundeak	59	68	9

Iturria: Lana, Migrazioak eta Gizarte Segurantza Ministerioa.

Langabezia erregistratuak igotzen jarraitzen du, baina gero eta gutxiago

Koronabirusaren hirugarren olatuaren etorrerak jardueraren murrizketak nabarmen gogortzea ekarri zuen berarekin. Hala eta guztiz ere, Euskadiko langabezia gero eta gehikuntza tasa apalagoak jasotzen ari da. Hain zuzen ere, otsailaren amaieran 129.028 pertsonak bilatzen zuten lan bat baina ez zuten aurkitu. Kopuru hori aurreko urtekoa baino 11.789 pertsona handiagoa da. Horrek urte arteko aldakuntza tasa %10,1ean uzten du, ekainean tasa horrek %30 inguruko balioak zituen bitartean. Enplegu suntsiketa moteltzeko orduan, ABEEak paper erabakigarria jokatzen ari dira. Horiei esker, krisi honetan erregistratutako langabeziaren gorakada Atzeraldi Handian, duela hamar urte pasatxo, izan zena baino txikiagoa izaten ari da orain.

LANGABEZIA ERREGISTRATUA. GUZTIRA
Urte arteko aldakuntza tasa

LANGABEZIA ERREGISTRATUA. OTSAILA
%10,1



LANGABEZIA ERREGISTRATUA. EMAKUMEAK
Urte arteko aldakuntza tasa



LANGABEZIA ERREGISTRATUA. GIZONAK
Urte arteko aldakuntza tasa



LANGABEZIA . GAZTEAK
Urte arteko aldakuntza tasa



LANGABEZIA . ATZERRITARRAK
Urte arteko aldakuntza tasa



Langabeziaren hazkunde erritmoa leundu dela sektore ekonomiko nagusi guztietan hautematen da. Izan ere, eraikuntzatik hasita, beheranzko bideari heldu zion berriro, aurreko hilabeteko gorakadaren ondoren. Beste aldetik, zerbitzuen balioak udan erregistratutakoak baino askoz txikiagoak izan ziren, baina ostalaritzak, bereziki, gainerako jarduerek baino modu nabarmenagoan jasan zituen murrizketak. Bitartean, industriak, ekainean hazkunderik handiena izan ondoren, beheranzko joerarekin jarraitu zuen. Azkenik, aipatu behar da otsailean 52.269 lan kontratu sinatu zirela, hau da, aurreko urtean baino %28,1 gutxiago. Kontratu berri horietatik, %9,6 soilik izan ziren iraupen mugagabekoak.

LANGABEAK

	2020ko otsaila	2021eko otsaila	Aldakuntza
LANGABEAK GUZTIRA	**117.239**	**129.028**	**11.789**
LURRALDE HISTORIKOEN ARABERA			
Araba	19.339	21.855	2.516
Bizkaia	66.875	72.774	5.899
Gipuzkoa	31.025	34.399	3.374
SEXU ETA ADINAREN ARABERA			
Gizonak	51.118	57.343	6.225
Emakumeak	66.121	71.685	5.564
25 urtetik beherakoak	8.626	10.703	2.077
25 urte baino gehiago dutenak	108.613	118.325	9.712
EKONOMIA SEKTOREAREN ARABERA			
Lehen arloa	2.543	2.769	226
Industria	13.963	15.101	1.138
Eraikuntza	7.913	8.346	433
Zerbitzuak	78.862	87.022	8.160
Lehenago lan egin dutenak	103.281	113.238	9.957
Lehenago lan egin ez dutenak	13.958	15.790	1.832
ERREGISTRATUTAKO LANGABEZIA. ATZERRITARRAK			
Langabe atzerritarrak	18.689	20.794	2.105

Iturria: SEPE.

KPI indizea tasa positibotara itzuli zen urtarrilean

KPI INDIZE OROKORRA
Urte arteko aldakuntza tasa



Kontsumo prezioek gora egin zuten berriro urtearen hasieran, bederatzi hilabetez tasa negatibotan egon ostean. Zehazkiago, urtarrileko KPIaren aldakuntza tasa %0,6 izan zen, abenduan baino bederatzi hamarren handiagoa. Prezioak igotzeko faktore erabakigarriena elektrizitateak izan zuen garestitze nabarmena da.

KPIAREN BANAKETA
Urte arteko aldakuntza tasa eta ekarpenak

	2019	2020	2021eko urtarrila	Ekarpena
Inflazio osoa (%100)	1,0	-0,1	0,6	0,6
Azpiko inflazioa (%80,5)	1,0	0,8	0,6	0,5
- Elikagai landuak (%16,7)	0,6	1,7	0,6	0,1
- Industria ondasunak (%23,6)	0,3	0,3	0,3	0,1
- Zerbitzuak (%40,2)	1,6	0,8	0,7	0,3
Hondar inflazioa (%19,5)	0,8	-4,0	0,3	0,1
- Landu gabeko janariak (%9,5)	1,3	4,0	3,2	0,2
- Energia (%10,0)	0,4	-9,4	-0,8	-0,1

AZPIKO INFLAZIOA
Urte arteko aldakuntza tasa



HONDAR INFLAZIOA
Urte arteko aldakuntza tasa



Brent motako petrolio upelaren eguneko prezioa

Dolarrak upeleko



Aipatu berri den bezala, INEren datuen arabera, argindarraren prezioek izan zuten gorakadak eragin zuen KPIaren igoera. Gorakada hori elurte handiak eta ondorengo hotz boladak eragindako eskari elektrikoaren emendatzearen ondorioz gertatu zen. Horri aldi horretan berriztagarrien energia ekoizpen eskasa gehitu beharko litzaioke. Arrazoi horiek direla eta, argindarraren salneurria maila maximotara iritsi zen. Horiek horrela, etxebizitza taldeak izan zuen eragin positiborik handiena KPIaren urteko tasaren bilakaeran, %3,6ko aldakuntzarekin, aurreko hilabetearekin alderatuta hiru puntu baino gehiagoko igoerarekin, lehengai horrek talde horretan duen pisua dela eta. Aisialdiko eta kulturako taldeak ere prezioetan goranzko mugimenduak erregistratu izanaren erantzukizuna izan zuen, puntu bat eta bederatzi hamarren igo ondoren, – %0,3ra arte, pakete turistikoak 2020ko urtarrilean aurten baino gehiago jaitsi zirelako. Azkenik, garraioak puntu bat eta hiru hamarren egin du gora, autoen prezioak igo egin zirelako.

KPI talde nagusiak

Urte arteko aldakuntza tasa. 2021eko urtarrila

	Euskadi	Espainia	Eurogunea
INDIZE OROKORRA	**0,6**	**0,5**	**0,9**
Janariak eta alkoholik gabeko edariak	1,7	1,7	1,0
Edari alkoholdunak eta tabakoa	0,6	0,4	3,3
Jantziak eta oinetakoak	0,8	0,9	2,5
Etxebizitza, ura, argindarra eta beste erregaiak	3,6	3,2	0,3
Altzariak, etxeko tresneria eta mantentzea	0,8	0,7	1,2
Osasuna	0,3	0,5	0,2
Garraioa	-2,8	-3,2	-1,1
Komunikazioak	-3,5	-3,5	-1,3
Aisia eta kultura	-0,3	0,1	2,7
Hezkuntza	0,4	-0,2	0,0
Jatetxeak eta hotelak	1,4	0,6	0,8
Bestelako ondasunak eta zerbitzuak	0,6	1,1	1,8

Iturria: INE , Eurostat eta Ekonomia Gaietarako eta Eraldaketa Digitalerako Ministerioa.

Koronabirusak Europar Batasunaren zazpi urteko hazkundeari amaiera eman dio

Europar Batasuneko BPGaren hazkundea

Urte arteko aldakuntza tasa

2020ko BPGa

-%6,4



Pandemiaren bilakaerak munduko ekonomia baldintzatzen jarraitu du. Hala baieztatzen dute Eurostatek argitaratutako azken datuek. Hirugarren hiruhilekoan errebote handiak izan ondoren, are biziagoak hiruhileko arteko tasetan, Europako ekonomia nagusietan bi zenbakiko gorakadara iritsi baitziren, urtearen azken aldian bigarren olatuaren inpaktuak pertsonen mugikortasunerako eta jarduera ekonomiko batzuetan normaltasunez jarduteko murrizketak berriz onartzea ekarri zuen, eta horrek eragin negatiboa izan zuen jarduera ekonomikoaren bilakaeran.

Zehatzago adierazita, Europar Batasuneko barne produktu gordina %4,8 jaitsi zen iazko azken hiruhilekoan, eta horrek – %6,4ko urteko balantzea ekarri zuen berarekin. Euroguneak antzeko joera izan du, baina zertxobait biziagoa. Iazko laugarren hiruhilekoan, eremu horretako BPGa -%5,0 murriztu zen, hau da, 2020an %6,8ko beherakada osatu zuen. Pandemiak atzeraldi historikoa ekarri du, eta nabarmen gainditu ditu aurreko atzeraldian, hots, 2009an, Europar Batasunak (-%4,3) eta Euroguneak (-%4,5) izan zituzten beherakadak.

Euroguneko BPGaren hazkundea

Urte arteko aldakuntza tasa

2020ko BPGa

-%6,8



Alemaniako BPGaren hazkundea
Urte arteko aldakuntza tasa



Frantziako BPGaren hazkundea
Urte arteko aldakuntza tasa



Alemaniak, Europako ekonomia handienak, %3,6 egin zuen behera 2020ko laugarren hiruhilekoan, Covid-19ko olatu berriak geldiarazteko egindako murrizketen eraginez. Hala ere, berriro atzeraldian sartzea saihestu zuen ekonomia handi bakarra izan zen, bere ekonomian eragin txikiagoa izan zuelako. Hala baieztatzen du haren BPGak: %4,9 egin zuen behera 2020an, 2009an erregistratutako –%5,7 baino gutxiago. Europako gainerako ekonomia nagusiek joera bera erakutsi zuten. Bigarren olatuaren ondorioak ia sektore guztietan nabaritu ziren, bai zerbitzuetan bai ondasunen ekoizpenean, eta iazko hirugarren hiruhilekoan hasitako susperraldia oztopatu zuten. Zehatzago adierazita, 2020ko azken hiruhilekoan Frantziak %5,0 egin zuen behera, Italiak %6,6 eta Portugalek %5,9. Aurreko guztiaren ondorioz, herrialde horiek 2020an erregistratu zuten jardueraren beherakada historikoa izan zen, Atzeraldi Handian izandakoa baino are handiagoa. Zehazki, Frantziako barne produktu gordina %8,3 jaitsi zen, Italiakoa %8,9 eta Portugalekoa %7,6.

2021eko lehen hiruhilekoari dagokionez, bilakaera zalantzazkoa da. Txertaketa hasi den arren, munduko ekonomia hirugarren olatu batean murgilduta dago, horrek dakartzan murrizketekin, eta, beraz, baliteke suspertze prozesua geroratzea.

Italiako BPGaren hazkundea
Urte arteko aldakuntza tasa



Portugaleko BPGaren hazkundea
Urte arteko aldakuntza tasa



Iturria: Eurostat.

Euroguneko sentimendu ekonomikoak hobera egin zuen otsailean

SENTIMENDU EKONOMIKOA. EUROGUNEA

OTSAILEKO DATUA

93,4



Europako Batzordeak herrialde europarren sentimendu ekonomikoaren otsaileko datuak argitaratu berri ditu. Eurogunearen kasuan, indize hori 93,4koa da, eta 100etik behera dago, hots, 2000. urtetik erregistratutako batez besteko mailaren azpian. Beraz, euroaren eremuan ezkortasuna da nagusi oraindik. Hala eta guztiz ere, azpimarratu behar da datu hori martxotik izandako altuena dela, orduan hartu baitziren konfinamendu neurriak Europako herrialde gehienetan.

Europar Batasunean, oro har, antzeko egoera dago, eta eremu horretako indizea 93,1era iritsi da. Bai eremu ekonomiko batean bai bestean, argi ikusten da pandemiak bereziki kalte egiten diela zerbitzu jarduerei; industria eta eraikuntza, berriz, dagozkien batez bestekoak baino maila altuagoetan daude. Adierazle horrekin batera, enpleguaren igurikimenen indizea ere argitaratu da: 90,9 Eurogunean eta 91,9 Europar Batasunean, bi kasu hauetan ere batez bestekoetatik urrun.

SENTIMENDU EKONOMIKOA. EUROPAR BATASUNA

OTSAILEKO DATUA

93,1



Sentimendu ekonomikoa. Alemania



Sentimendu ekonomikoa. Frantzia



Euroguneko lau herrialde nagusietatik bat bera ere ez du sentimendu ekonomiko baikorrik erakusten. Alemania da egoerarik onenean dagoen herrialdea, eta haren indizeak hiru puntu egin du hobera, 95,8ra arte. Industriak eta eraikuntzak sendotasun handia erakusten dute, baina zerbitzuak hogeita bost puntura daude egoera normala berreskuratzeko. Bestalde, Frantziak zalantza handiak erakusten ditu bere egoeraren inguruan, sentimendua batez bestekotik bederatzi puntura baitago eta alde guztiak posizio negatiboan daude. Enpleguaren igurikimenak okerrera egin du.

Italiaren kasuan, otsailean sentimenduak hobekuntza nabarmena izan zuen, 90,2tik 94,6ra, Mario Draghiren gobernuaren eraketarekin lotuta egon daitekeena. Indizearen atal guztiek hobera egin dute eta kontsumitzailearen igurikimenak baikorrak dira. Azkenik, Espainiaren kasua beste herrialdeen hobekuntzatik urrundu da eta hiru puntu baino gehiago egin zuen okerrera otsailean, 90,7ra arte. Datu txarrak zerbitzuetan eta txikizkako merkataritzan hauteman dira, kontsumitzailearen konfiantzarekin batera, baina industria eta eraikuntza batez bestekoetara hurbiltzen ari dira.

Sentimendu ekonomikoa. Italia



Sentimendu ekonomikoa. Espainia



Iturria: Europako Batzordea.

Ekonomiaren eszenategia txertoen eraginkortasunaren mendean dago

EUROPAR BATASUNAREN BPGA
Urte arteko aldakuntza tasa



Neguko txostenean Europako Batzordeak argitaratu dituen aurreikuspenen arabera, Europar Batasunaren hazkunde tasak %3,7 eta %3,9 izango da 2021ean eta 2022an, hurrenez hurren. Eurogunean %3,8ko gehikuntza lortuko da bi urte horietan. Krisiaren aurreko ekoizpen mailetara itzultzea udazkeneko aurreikuspenek aurreikusten zenean baino lehenago gertatuko dela pentsatzen da orain. Aurreko txostenarekin alderatuta, dinamismo handiagoa espero da, bai 2021eko bigarren seihilekoan bai 2022an.

Pandemiari eusteko neurrien aplikazioa dela eta, Europar Batasuneko ekonomiak eta Eurogunekoak 2021eko lehen hiruhilekoan behera egingo dutela aurreratu dute.

BPG. EUROPAR BATZORDEAREN AURREIKUSPEN EKONOMIKOAK

	Oraingoak			Aurreko txostenarekiko aldeak	
	2020	2021	2022	2021	2022
Europar Batasuna	**-6,3**	**3,7**	**3,9**	**-0,4**	**+0,9**
Eurogunea	**-6,8**	**3,8**	**3,8**	**-0,4**	**+0,8**
Alemania	-5,0	3,2	3,1	-0,3	+0,5
Belgika	-6,2	3,9	3,1	-0,2	-0,4
Espainia	-11,0	5,6	5,3	+0,2	+0,5
Frantzia	-8,3	5,5	4,4	-0,3	+1,3
Italia	-8,8	3,4	3,5	-0,7	+0,7
Herbehereak	-4,1	1,8	3,0	-0,4	+1,1
Portugal	-7,6	4,1	4,3	-1,3	+0,8
Irlanda	3,0	3,4	3,5	+0,5	+0,9
Grezia	-10,0	3,5	5,0	-1,5	+1,5
Austria	-7,4	2,0	5,1	-2,1	+2,6

Alemaniako BPGa
Urte arteko aldakuntza tasa



Frantziako BPGa
Urte arteko aldakuntza tasa



Espainiako BPGa
Urte arteko aldakuntza tasa



Europako Batzordearen aurreikuspenen arabera, hazkunde ekonomikoa udaberrian berreskuratuko da, eta udan, berriz, erritmoa areagotu egingo da, txertaketa prozesuak aurrera egin ahala eta mugikortasuna eta jarduera murrizten duten neurriak arindu ahala. Pandemiaren eragin ekonomikoa desberdina izan da herrialde kideen artean, eta susperraldiaren azkartasunean ere ezberdintasunak egongo dira.

Egoera ekonomiko horretan ziurgabetasun handia dago, pandemiak epe laburrean izango duen bilakaerari eta txertaketa kanpainen arrakastari lotuta.

KPI. Europar Batzordearen aurreikuspen ekonomikoak

	Oraingoak			Aurreko txostenarekiko aldeak	
	2020	2021	2022	2021	2022
Europar Batasuna	**0,7**	**1,5**	**1,5**	**+0,2**	**0,0**
Eurogunea	**0,3**	**1,4**	**1,3**	**+0,3**	**0,0**
Alemania	0,4	2,3	1,3	+0,9	0,0
Belgika	0,4	1,8	1,8	+0,4	+0,2
Espainia	-0,3	0,8	1,1	-0,1	+0,1
Frantzia	0,5	1,1	1,5	+0,2	0,0
Italia	-0,1	0,8	0,9	+0,1	-0,1
Herbehereak	1,1	1,4	1,5	+0,1	+0,1
Portugal	-0,1	0,9	1,2	0,0	0,0
Irlanda	-0,5	0,7	1,6	+0,4	0,0
Grezia	-1,3	-0,1	0,6	-1,0	-0,7
Austria	1,4	1,7	1,7	0,0	0,0

Iturria: Europar Batzordea.

Txertaketak baikortasun izpi bat ekarri du

Otsailean, **Europako herrialdeetan itxaropenak zertxobait egin du hobera**, eta, zalantzarik gabe, hobekuntza hori lotuta dago COVID-19aren aurkako txertaketa kanpainari eta hilabete batzuen buruan normaltasunera itzultzeko aukera egongo delako konfiantzari. Hala eta guztiz ere, ziurgabetasuna handia da oraindik. Egoeraren adibiderik adierazgarrienetako bat euroaren eremuko PMI indize konposatua da, otsaileko aurrerapenean 47,8tik 48,1era igo zena, oraindik hazkundea eta uzkurdura bereizten dituen 50. baliotik urrun egon arren. Hobekuntza hori Alemanian gauzatu da, 51,3an kokatu baita. Frantziak, ordea, zertxobait egin du behera, 45,2 puntutan kokatu arte. Beste aldetik, adierazlearen aurrerapenak seinalatzen du zerbitzuak okertu egin direla eta manufakturak, berriz, hobetu.

Antzerako norabidean mugitzen da Europako Batzordeak argitaratzen duen sentimendu ekonomikoaren indizea, **otsailean eskuratu baitzuen pandemia hasi zenetik inoizko emaitzarik onena**, nahiz eta oraindik egoera normaltzat jo daitekeenetik (100 mailatik, alegia) urrun dagoen. Zehazkiago adierazita, euroguneko indizea 93,4ra igo da, eta Europar Batasunekoa, berriz, 93,1era. Herrialdeka aztertuta, Alemania da hedapen eremura itzultzetik gertuen dagoen ekonomia (95,8), industriaren eta eraikuntzaren sendotasunari esker, baina gainerako herrialdeek zerbitzuekin duten arazo bera du herrialde horrek ere. Industriaren egoera ona otsaileko IFO indizean ere islatu da: 90,3tik 92,4ra igo da, eta adierazle horren mailarik altuena da 2018ko azarotik. Egoera 90,6koa da, baina aurreikuspenak 94,2ra arte iristen dira, eta horrek baikortasun handia erakusten du etorkizunari begira. Adierazle horren arabera, manufakturez gain, zerbitzuek, merkataritzak eta eraikuntzak ere pauso txiki bana eman dute bide onean hilabete horretan, normaltasunetik urrun dauden arren.

EAEko ekonomiari dagokionez, argitaratu den daturik berriena otsaileko industria giroaren indizearena da, urtarrilekoaren antzera mantentzen dena eta **sektorean baikortasun neurritsua dagoela adierazten duena**. Eskaera zorroa oraindik ez da nahi bezain sendoa eta produkzioaren joera hobea izan liteke, baina bi kasuetan gaur eguneko egoera 2019ko amaieraren antzekoa da, hots, pandemia baino lehenago zegoenaren antzekoa. Beste aldetik, zerbitzuetako negozioen zifrak jaitsiera leundu zuen abenduan, -%10,2tik -%5,4ra. Orobat, saltoki handietako salmentek %0,4ko urte arteko igoera izan zuten urtarrilean, elikagaien salmenten une onari esker (%7,8 areagotu ziren), nahiz eta gainerako produktuek salmentak (-%11,9) behera egin zuen. Aitzitik, turismoarekin lotutako jarduerek hondoratuta jarraitzen dute, urtarrilean hoteletako gaualdien -%72,2ko amiltzeak adierazten duen bezala.

Azkenik, eraikuntzaren adierazle batzuk ere ezagutu dira, emaitza positiboak erakutsi dituztenak, gorabehera handiak izan ohi dituzten arren. Alde batetik, abenduan formalizatutako etxebizitzen gaineko hipotekak 2019koak baino %10,0 gehiago izan ziren, eta hazkunde handiko bigarren hilabetea izan zen. Bestalde, etxebizitza berrietarako baimenak %19,5 hazi ziren abenduan, eta bosgarren hilabetez jarraian egin dute gora. Bi datu horien arabera, **etxebizitzaren sektorea suspertzen ari da**. Eraikuntzaren koiuntura indizearen datuak ez dira hain onak izan, oraindik ere %5,7ko jaitsiera erakusten baitute laugarren hiruhilekoan, nahiz eta beherakada hori urteko batez bestekoa baino txikiagoa izan (-%7,3). 2020ko amaieran, eraikinek obra zibilak baino urte arteko tasa ez hain negatiboa jaso zuten (-%5,1 eta –%9,2, hurrenez hurren).

ESTATISTIKA ERANSKINA. EUSKAL EKONOMIA

TAULA MAKROEKONOMIKOA. EUSTAT. Urte arteko aldakuntza tasa

	2019	2020	2019		2020		
			IV	I	II	III	IV
BPG	**2,2**	**-9,5**	**2,2**	**-3,2**	**-19,5**	**-7,5**	**-7,6**
Barneko azken kontsumoa	1,9	—	1,6	-3,0	-15,4	-5,9	—
Familien kontsumoa	1,8	—	1,5	-4,8	-20,3	-8,5	—
Administrazioaren kontsumoa	2,2	—	2,3	4,1	3,0	3,6	—
Kapital eraketa gordina	3,3	—	2,7	-3,6	-23,0	-11,4	—
Barne eskaria	2,2	—	1,9	-3,1	-17,2	-7,2	—
Esportazioak	0,4	—	1,4	-7,5	-30,1	-15,5	—
Inportazioak	0,4	—	1,0	-7,2	-26,4	-14,8	—
Lehen arloa	3,2	—	5,9	3,5	-6,1	-7,2	—
Industria eta energia	1,3	—	2,2	-3,6	-26,7	-9,5	—
Eraikuntza	3,4	—	2,1	-2,7	-17,9	-9,3	—
Zerbitzuak	2,5	—	2,1	-2,8	-17,5	-6,5	—
Balio erantsi gordina	2,3	—	2,2	-3,0	-19,6	-7,4	—
Ekoizkinen gaineko zerga garbiak	2,2	—	2,3	-5,1	-18,4	-8,5	—
Enplegua	1,5	—	1,2	-2,8	-17,2	-6,2	—

ABENDUKO AURREIKUSPENAK. EKONOMIA ETA PLANGINTZA ZUZENDARITZA . Urte arteko aldakuntza tasa

	2020	2020	2021				2021
	IV		I	II	III	IV	
BPG	**-7,3**	**-9,4**	**0,0**	**21,3**	**7,7**	**7,4**	**8,6**
Barneko azken kontsumoa	-5,9	**-7,5**	0,4	17,4	6,0	6,2	**7,2**
Familien kontsumoa	-8,3	**-10,5**	0,0	22,3	7,2	7,2	**8,7**
Administrazioaren kontsumoa	3,2	**3,5**	1,5	2,2	1,4	1,7	**1,7**
Kapital eraketa gordina	-8,8	**-11,7**	-1,3	24,8	8,7	8,5	**9,4**
Barne eskariaren ekarpena	-6,8	**-8,9**	0,0	20,3	6,7	6,9	**7,9**
Kanpo eskariaren ekarpena	-0,5	**-0,5**	0,0	1,0	1,0	0,5	**0,8**
Lehen arloa	-9,6	**-5,0**	11,6	13,6	8,6	11,2	**11,3**
Industria	-9,1	**-12,2**	-0,1	28,3	7,8	7,0	**9,7**
Eraikuntza	-8,9	**-9,7**	-0,3	18,5	7,7	7,3	**7,9**
Zerbitzuak	-6,4	**-8,3**	-0,1	19,5	7,6	7,5	**8,2**
Balio erantsi gordina	-7,2	**-9,3**	0,0	21,3	7,7	7,4	**8,6**
Ekoizkinen gaineko zerga garbiak	-8,2	**-10,1**	-0,3	20,0	7,8	7,4	**8,4**
Lanaldi osoko lanpostuak	-6,3	**-8,1**	-1,3	17,4	6,1	6,2	**7,0**
Landunak (BJA)	-3,3	**-2,7**	-1,8	2,9	2,9	2,8	**1,7**

EAEKO AURREIKUSPENAK. BESTE ERAKUNDE BATZUK. Urte arteko aldakuntza tasa

	2020	2021		2020	2021
Hispalink (BEGren aldak.)	-10,6	7,0	Funcas	-9,7	6,1
BBVA	-10,5	5,3	Confebask	-9,2	7,2
Laboral Kutxa	-10,2	7,0	Afi	-7,5	—
CEPREDE	-10,1	8,4			

ESTATISTIKA ERANSKINA. ESPAINIAKO EKONOMIA

TAULA MAKROEKONOMIKOA. INE
Urte arteko aldakuntza tasa

	2019	2020	2019	2020			
			IV	I	II	III	IV
BPG	**2,0**	**-11,0**	**1,7**	**-4,2**	**-21,6**	**-9,0**	**-9,1**
Kontsumo pribatua	0,9	-12,6	1,0	-6,1	-25,4	-10,5	-8,4
Kontsumo publikoa	2,3	4,5	2,6	3,8	3,2	3,8	7,0
Kapital finkoaren eraketa gordina	2,7	-12,4	0,9	-5,2	-24,5	-9,1	-11,0
- Aktibo finko materialak	2,7	-14,5	0,1	-7,1	-28,2	-10,2	-12,7
- Eraikuntzan	1,6	-15,8	-2,2	-6,9	-25,9	-13,1	-17,5
- Ekipamendu ondasunetan	4,4	-13,4	3,6	-7,8	-33,3	-6,6	-6,4
- Jabetza intelektualaren produktuak	2,6	-1,5	5,0	4,6	-5,2	-3,3	-2,1
Nazio eskaria (ekarpena)	1,4	-9,0	1,0	-3,9	-18,7	-7,2	-6,3
Esportazioak	2,3	-20,9	2,1	-5,6	-37,8	-19,3	-20,6
Inportazioak	0,7	-16,8	0,3	-5,3	-32,5	-15,4	-14,1

BPGAREN AURREIKUSPENAK .BESTE ERAKUNDE BATZUK
Urte arteko aldakuntza tasa

	2020	2021		2020	2021
AFI	-11,7	6,4	IEE	-11,3	6,0
Axesor	-11,0	5,6	Intermoney	-11,1	6,1
BBVA	-11,0	5,5	Mapfre Economics	-11,3	6,1
Bankia	-11,2	6,0	Repsol	-11,0	6,2
CaixaBank	-11,4	6,0	Santander	-10,8	6,4
Cámara de Comercio España	-10,9	6,2	Ygroup Companies	-11,2	5,0
Cemex	-11,3	5,5	Universidad Loyola Andalucía	-11,0	6,0
CEEM-URJC	-11,3	7,5	**Consenso (media)**	**-11,2**	**6,3**
CEPREDE-UAM	-10,8	8,7	Gobierno (2020-10)	-11,2	7,2/9,8
CEOE	-11,5	7,0	Banco España (2020-12)	-10,7/-11,6	8,6/4,2
Equipo Económico (Ee)	-11,8	6,8	Comisión Europea (2020-11)	-12,4	5,4
FUNCAS	-11,5	6,7	FMI (2020-10)	-12,8	7,2
ICAE-UCM	-11,6	6,0	Consensus Forecast (2021-02)	-	5,7

Iturria: Espainiako Gobernua, AFI: Analistas Financieros Internacionales, Repsol, NDF: Nazioarteko diru funtsa, Bankia, BBVA, CaixaBank, CEOE: Confederación Española de Organizacines Empresariales, Comisión Europea, FUNCAS, Espainiako bankua, CEPREDE, Consensus Forecast, Axesor, Cámara de Comercio España, CEEM-URJC, Cemex, Equipo Económico (Ee), ICAE-UCM, Instituto de Estudios Económicos (IEE), Intermoney, Mapfre Economics, Santander, Universidad Loyola Andalucía, Ygroup Companies.

ESTATISTIKA ERANSKINA. NAZIOARTEKO EKONOMIA

BPGaren hazkundea
Urte arteko aldakuntza tasa

	2019	2020	2019	2020			
			IV	I	II	III	IV
AEB	2,2	-3,5	2,3	0,3	-9,0	-2,8	-2,5
Txina	6,1	-2,3	5,8	-6,8	3,2	4,9	6,5
Japonia	0,7	-4,8	-1,0	-2,1	-10,3	-5,8	-1,1
Kanada	1,9	-5,3	1,7	-0,3	-12,5	-5,2	-3,5
Europar Batasuna	1,6	-6,4	1,3	-2,6	-13,9	-4,2	-4,8
Eurogunea	1,3	-6,8	1,0	-3,2	-14,7	-4,3	-5,0
Alemania	0,6	-4,9	0,4	-2,2	-11,3	-4,0	-3,6
Frantzia	1,5	-8,3	0,8	-5,7	-18,8	-3,9	-5,0
Erresuma Batua	1,4	-9,9	1,2	-2,2	-21,0	-8,7	-7,8
Italia	0,3	-8,9	0,1	-5,6	-18,1	-5,1	-6,6
Herbehereak	1,7	-3,7	1,7	-0,4	-9,2	-2,5	-3,0

Iturria: Eurostat, BEA eta ELGE.

Consensus Forecast. 2021eko otsaila
Urte arteko aldakuntza tasa

	BPG		KPI		LANGABEZIA TASA	
	2021	2022	2021	2022	2021	2022
AEB	4,7	3,6	2,3	2,2	5,9	4,7
Japonia	2,3	2,3	-0,2	0,4	3,1	2,8
Kanada	4,6	4,0	1,7	1,9	8,0	6,7
Europar Batasuna	4,1	4,0	1,2	1,4	—	—
Eurogunea	4,4	4,1	1,2	1,2	8,9	8,4
Alemania	3,5	3,8	1,7	1,6	6,0	5,6
Frantzia	5,5	3,6	0,8	1,1	9,9	9,3
Erresuma Batua	4,2	5,6	1,5	2,0	6,6	6,0
Italia	4,3	3,9	0,5	0,9	10,8	10,2
Espainia	5,7	5,7	0,8	1,2	—	—
Herbehereak	2,5	3,0	1,3	1,4	—	—

Iturria: Consensus Forecast.